

DIRU SARRERAK

Erlojuen produkzioak 50 €-ko kostua izango duela ikusita, produktu bakoitzeko 35€ irabaziko ditugu 85€-tan salduko baitira Espainian, eta gure diru sarreren guztizko totala sun-watcharen bitartez lortuko ditugu. Eskaerak beste herrialderen batetik egin ezker, 10€ gehiago ordaindu beharko ditu bezeroak, bidalketa-prozesua kontuan hartuta. Beraz,



roduktuaren prezio finala 95€-koa izango da. Honi esker, errentagarritasun maila bat eskuratuko du enpresak eta langileei eta hornitzaileei ordaintzeko aukera ere egongo da.

Hasiera batean diru sarrerak webgunetikan soilik lortuko ditugu. Bezeroek, haien produktua (erlojua) pertsonalizatu ondoren, bertatik ordainketa egin beharko dute, ez baitugu denda fisikorik. Ordainketa metodoak oso ugariak dira;

1. PayPal-a: Zure finantza-datuak etengabe sartu behar izan gabe, ordaintzeko, dirua bidaltzeko eta ordainketak onartzeko aukera ematen dizun zerbitzua.
2. Lineako banku-transferentziak: Banku askok lineako banku-zerbitzuak eskaintzen dituzte, erabiltzaileei kontuen arteko funtsen transferentziak egiteko eta online diren ordainketak egiteko aukera ematen dietenak.
3. Kreditu eta zordunketa txartelak: Visa, MasterCard, American Express edo beste hornitzaile batzuk adibidez.

Denda fisikoak irekitzean, (irabazi nabarmenak izaten hasten garenean) bertan bezeroek efektibo moduan ere ordaindu ahal izango da.

Esan dugun bezala, subentzioa izango dugu “enpresa berde” bat izateagatik. Gainera, bankuari 300.000€-ko mailegua eskatuko diogu, horrekin aurreikusten dugu enpresa sortzeko nahikoa izango



dela. Epe luzeko mailegua eskatuko dugu, eta 7 urteetan ordaintzea aurreikusten dugu.